

## HISTORIAREN FILOSOFIA 5

Filosofiako karreran badago asignatura bat zaiona izena antropologia, baina ni ez nago ados hor estudiantzen dena antropologia deitzearekin, niretzat hor historia da estudiantzen dena, zeina hasten baita historia naturalean, antropologiak humanoak agertzean estudiantu beharko lukeena baino lehenago hasten dena, jakina denez. Eta antropologiako asignatura horretan bada agerikoa “sentido comun” deritzana, batez ere jartzen dutenean Marvin Harrisen teoria zentruan. Eta teoria hori materialismo kulturala da, zeina aplikatzen ahal zaion historiaren estudioari: baldintza materialak zelakoak izan eta halaxe izango da, gutxi gora behera, antolamendu politiko ekonomikoa. Materialismo kulturala niretzat egokiagoa da historia ikeretzeko ezen ez materialismo dialektikoa, zeina baita idealismo materialista molde bat.

Nire historiaren filosofia egiteko manera honelakoa da. Ni jakitun naiz ez dudala historia universal aabarkatzen nire teoriarekin. Nik hipotesis bat hartzen dut abiapuntutzat. Predikatuen logikan aditua denak badaki horrekin ez dudala kuantifikatzaile universalaren esferan, eta bai derivazio baten hasieran, zeina hasten baita suposamen batekin. Hipotesis batekin. Eta suposatuta egiten dut ezen oparotasun materialean joera ekonomikoa birbanatzailea dela, redistributiboa, baina igarotzen baldin bagara egoera material urrietara, privaziozkoetara, orduan

joera aldatu egiten da eta akumulatiboa da, metatzailea (paradigmatikoa izango litzateke basamortuetan garatu den kultura orientala, akumulatiboa, gerrazale ondorioz, eta patriarkala). Hipotesis horrekin nik historiaren filosofia bat egiten dut, eta herri indigenak ikusten ditut, aldaerak aldaera, inguru oparoetan, oso oparoetan, bizi izandakoak direla, eta joera birbanatzailea erakusten dutela euren antolamendu politikoetan, eta hori historikoa da, historiak estudiatu beharko lukeen fenomenoa. Baina oster, basamortuetako Orientean ikasten dut gizarte antolamendu politiko klasistak, marxismoan esaten den moduan, hau da, joera akumulatibo garbikoak, eta Orienteko kultura metatzailea ikasten dut nik gerraren eta patriarkatuaren hazia bezala, eta baita ikasten dut nik joera horren arrazionalizatze bat jabego pribatuaren inguruko legediarekin. Baina jada Grecia klasikoko sofistek (gerraren universal bihurtzaileak) komentatzen dute nola, segurutik Orienteko zivilizazioari begira, nola arrazionalizatze horrek ez duen lortzen borroka “naturalen” ageri dena erabat legedi logikoaren barruan sartzen, hau da, indartsuenen nagusigoa ez da sustituitzen behar den moduan legedi horrek erakusten duen jakituriatik. Baina bada jabego pribatuaren inguruko legedia, erromatarrek hainbeste garatua, bake ekarlea, behintzat halako kondizio privaziozkoetan. Gerra, oster, ez da horregatik desagertu, jakina den moduan, eta imperioen historia, kultura klasistaren barreneko historia, denok ezagutzen dugu. Eta hain da nabaria gainera joera hori ezen kultura klasista, oriental grekolatinoa, universalizat ere hartua izan da hainbatetan (sofisten kasua hor dugu), eta oso ospatuak dira mugimendu falaziak hori egin dutenak. Gaur egun halako kultura oriental grekolatinoa, aktualizatua jakina, da gure kulturaren oinarria. Zeren zabaldu baita planeta osora, indigenen kulturak geratu direlarik guztiz baztertuak. Agian erakusten dute bai egoera politiko birbanatzailea, baina bizi izan duten oparotasuna naturak eman die, eta ez da usuenean euren lanaren fruitu izan, eta badaiteke

ezen alferrak izan direlako geratu izana gaur egun dauden moduan, guztiz minorizatuak eta gutxietsiak (beste hipotesis bat izan daiteke hau: oparotasunak historikoki alferkeria ekarri duela, eta alferkeriak atzeratzea dakarrela, relajatzeagatik). Klasi-koek bitartean, gerren bitartez zabaltzen joan direla, gaur egun nagusigoa eurek dutelarik duda izpirik gabe (Elizako hierarkiak Jesusen parabolaren mezua aintzat hartuta, nola parabolak gogora ekartzen duten despotismo orientala, Elizako hierarkiak ere kultura klasista hori ezinbestekotzat jo du, ohartu gabe universal bihurtu du, kulturetan bera bada ere txarrena, ahaztuz Jesusek nola argitzen dien apostoluei jendeei parabolaz mintzatzea, hau da: paraboletan mintzatzeko zaie bestela konprenitzen ez dutelako, begiak dituzte ikusteko eta ez dutelako ikusten eta belarriak dituzte aditzeko eta ez dutelako aditzen. Jesusek Erresumaren misterioak esplikatzen zizkien apostoluei zuzenean, eta ez paraboletan, nahiz eta ez dizkiguten ezer esan evangelioetan hori izan ezik, nahikoa dena nik gero, gaur egun, kultura orientala partikularizatzeko, Jesusekin bat etorri, manera politiko hobeetarako azterbidea zabaltzen dudala horrela, idealista izan gabe, eta bai zientifikoa izanik).

Eta guzti hori antropologian baino nik historian estudiatzen dut, zeren fenomeno historikoak baitira.

Eta historiaren filosofia hau bururatzean nik ez dut ahazten ezen hasi naizela hipotesis batekin, eta hori garatu dut. Nahikoa simplea da nire hipotesia, baina garbi daukat ezen ez na-goela historia universal erabat esplikatzen moduan. Baina argi piska bat badut eman. Eta daukat ezen hipotesien bitartez historiaren filosofia ezberdinak egiten ahal direla, eta ez bada ahazten oinarriak suposamenak direla, ez gaude falazian eroriak, eta bai egiazko bideetatik.

Falaziazkoa da trazu ezinago laburretan deskribatu dudana kultura klasikoa, klasista, joera akumulatiboak eragina, kontsideratzea universal delako (Jesusek ez du halakorik egiten!). Egia

da ezen bertan teorizatu dela ondoen universaltasunaz, baina universaltasuna misterioa denez nola demontre lotu daiteke kultura bat (gaiztoena dena gainera), zabalduena bada ere, universaltasunari?, ezinezkoa da. Eta universaltasunaren argumentu falaziazko hori erabiltzen dute espainolistek euskal nazionalismoaren kontra, eta argumentu falsua da (euskal kultura, adibidez, hizkuntzan badugu aurkitzen halako aztarna bat erakusten duena kultura zahar hori birbanatzailea zela, eta da persona adierazteko lagun esaten dela). Eta espainolistek (ni ez nago obsesionatua euren kontra) euren kultura universalizat hartzen dutenean ez dakite zer universal bihurtze klase egiten duten, ikusi besterik ez dago nolakoa den hainbatetan kultura klasiko hori (kultura klasista eskandalosua ere dela esango nuke nik), eta beste aldetik nola izango da universal kultura bat besteak ignoratzen baditu?, ezagutza universal batek, definizioz, den dena, salbuespenik gabe, ezagutzen du, baita Euskal Herria ere, eta hola..

Historiaren filosofia bat egiterakoan ez genuke sekula ahaztu behar ezen suposamenetan hasten dela gure teorizazioa, eta hor ondo gabiltza.

Hauxe adibide bat izan da, eta ekonomia hartu dut hipotesizat badakidalako zelako importantzia duen historian. Baina ez dut universalizat hartu ekonomiaren garrantzia. Hor dago falazian ez jaustearen sekretua. Eta privazio ekonomikoa baldin bada hainbeste gaitzen eragile, orduan proposatzen dut, nire zientzia politikoan, oparotasun baldintzak gertatzea, eta horretarako politikak sustatzea, bultzatzen den bitartean joera banatzailea, magnanimoa. Kultura indigenen estudioan badugu ikasia hori posible dela, eta historikoa ere badela, gaur egun gezurra dirudien arren gure kultura honetan, orientekoan hazia duena, errotuak gaudenontzat, nahiz eta Jesusek ere Bere parabola “orientalak” esplikatzen dituen esanik beste modu batean (hobean!) jendeak, Bere garaiko eta geografiako jendeak,

ez duelako ulertzen, horregatik erakusten zuen despotismo orientala gogora ekartzen duten paraboletan.

Beste hipotesis bat ere hartu dut historia hobeto komprenitzeko, hau da: oparotasunean alferkerian erortzen dela, eta hortik esplikatzeko ahal da nazio indigenen atzerapena.

Eta nola hipotesiak asko ahal diren konturatzeko beste bat ipiniko dut gero dedukzioak egiteko, beste historiaren filosofia egiteko. Har dezagun hipotesizat denok garela diferente, hau da principium individuationis delakoa. Orduan ondorioztatu behar dugu kultura guztietan egin izan direla hierarkiak, eta hola. Eta aunitzetan gainera erori da harrokeriaren bekatura, hau da, arrazakeriaren teorizaziora, eta praktikara. Hori herri indigenetan baino kultura orientaletik datozen kulturetan gertatu da gehiago, piska bat sakonduz gero denok dakigun moduan.

Historiaren filosofia da niretzat zientzia politikora igarotzeko balio duen propedeutika bat. Eta hola, zientzia politikoan, nire historiaren filosofia horretatik, nik proposatuko nuke arrazakeria konbatitzeko joera aristokratikoa edukitzea, beti hoberenak, bakoitza bere zereginetan, aukeratzeko joera (demokrazian ere hori bilatzen da). Guztiz onuragarria da, nahiz eta beti ez den asmatzen.

Lektore atentoa ohartuko da bekatuak hartzen ditudala hipotesizat (zekenkeria, alferkeria, harrokeria...) nire historiaren filosofia diferenteak egiteko, eta historiaren filosofia horietan oinarritzen naizela gero nire zientzia politikoa egiteko. Zientzia bat, etika bezala, praktikoa dena, etorkizun dena indeterminatua baita.

Nik, seminarioan egon nintzenean, gaizki ez banaiz akordatzen, lehenbizi esan behar dut vokazioagatik izan zela (nire lehen vokazioa, bigarrena izan zen fisiko nuklearra izatea eta azkenik psikoanalista izatea deliberatu nuen, eta horregatik egin nuen medizina lehenbizi), ez ninduten eroan beste moti-voetatik, eta bertan daukat ezen ikasi nuela ezen Jesusen os-

tean jada ez dagoela profetarik. Apocalipsia denbora txarretarako liburua da. Eduki nuen comboniano batekin eztabaida bat horretaz eta harek esaten zidan doai profetikoa Jesusen ostean ez dela konprenitzen Haren aurretik konprenitzen zen moduan. Nik seminariotik, hori dut memorian, ikasia dut Jesusen ostean jada ez dagoela profetarik. Etorkizun denaz zientzia egin daiteke, diot nik zientzia fikzioa, hain zuzen. Hori diot nik. Eta daukat ezen zientzia fikzioa egiazki zientzia bat izan daitekeela, eskubide osoz gainera, estudiatzeko gertatu daitezkeen problemak eta nola kompontzen ahalko diratekeen.

Beraz, hiru privazio mota hartu ditut hipotesizat, adibide bezala, lehena ekonomikoa (eta marxismotik haratago joan naiz nire argumentazioan, eta daukat ezen hobeto esplikatzeko dudala historia, batez ere formazio klasisten historiaren jatorria ipiniz basamortuetako kulturetan), bigarrena, alferkeria (eta hor sakondu nahi duenak badu historiaren filosofo musulman bat, Ibn Jaldun), eta hirugarrena harrokeria (lehen bekatua dena, eta esplikatzeko duena fenomeno universal bat, hierarkiak egiteko joera, batzuetan, askotan ere, arrazismoraino ere joan delarik, degeneratu delarik)... eta horiek suposatuz direla historiaren eragileak nire historiaren filosofiak, oso simpleak, burutu ditut, larregi zabaldu gabe nire hizpidea, eta ikasten dut ezen badagoela zertan lan egin horiek eta beste guztiak, konbatitzeko, nahiz eta privazio jatorrizko bat dugun, eta horregatik utopiarik ezinezkoa den, baina bai, bada posible aurreratzea, eta posible baldin bada orduan obligazioa ere bada. Eta atzera egitea ere posibilitate bat da (esan dezadan egia). Baina aurreratzea posibleago egiteko nik zientzia politikoaren barmean proposatu egiten dut beste zientzia bat egitea, eta da zientzia fikzioa, hipotesien bitartez ere etorkizuneko problema posibleak ikertuko lituzkeena. Zeren ez baitakigu gure umeez, gure ondorengoek, zer egingo duten.

Roman Garmendia